

LEZET

AGENDA

Kulturala

2021 // IRAILA-ABENDUA



Lezoko
Unibertsitateko
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteleria
eta Erakundeen Departamentua



ORAIN
KULTURA



SAREA
EUSKADIKO
ANTZOKI SAREA
RED VASCA
DE TEATROS

HAUR ANTZERKIA

Gezala Auditoriumean, ostiraletan, 17:15ean

TEATRO INFANTIL



URRIAK

15

Ostirala
17:15

GIZA GORPUTZAREN ERDIGUNERA BIDAIA

Spasmo Teatro. SALAMANCA. EUS. SARRERA 3€

Pertsona baten barruan sartu eta abentura harrigarri bat bizitzeko bezain txikiak bagina? Ongi etorri gure gorputzean zeharreko bidaia zoragarria! Gaztela eta Leongo Antzerki Feriako haurrentzako ikuskizun onenaren saria.



URRIAK

29

Ostirala
17:15

LÁZARO DE TORMES

Pedras de Cartón. CORUÑA. HITZIK GABE. SARRERA 3€

Coruñan jaio zen Pedras de Cartón konpainia bere ikuskizunak ahalik eta jende gehienarengana iristeko asmoarekin. Lázaro de Tormesekin klasiko pikareskoa lantzen dute eta lehen aldiz, maskarekin eta hitzik gabe kontaktuta izango da.



AZAROAK

5

Ostirala
17:15

OILAR BAT DAGO ZURE TEILATUAN

Titirigui teatro. MADRID. EUS. SARRERA 3€

Oilar bat ezin mugiturik dago eraikin bateko teilatuan. Beheko bizilaguna jakin-minez dago, oilarren kantuak behiarena dirudi eta. Horren zergatia galdetuko dio oilarari eta unorearen eta bertsoen bitartez istorio honen nondik norakoak ezagutuko ditugu.



AZAROAK

17

Ostirala
17:15

OLIVER MAGOA

Oliver Magoa. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 3€

Edozein pertsonak irribarre bat ateratzeko egin dezakeen guztia da ekintza magikoa. Oliver Magoa agertokira igotzen den bakoitzean, magia-trukorik harrigarrienak eta umorerik onenak bat egiten dute. Familia osoarentzako ikuskizun magikoa.



AZAROAK

26

Ostirala
17:15

TEMPUS

El que ma queda de teatro. CATALUÑA. HITZIK GABE. 3€

Klausek ez du hitz egiten. Beno, tempus besterik ez du esaten, baina ongi moldatzen da horretako erlojuen historia kontatzeko, ordulariak konpondu ditzakeela erakusteko edo orkesta batetako zuzendaria izan daitekeela frogatzeko.

HAUR ZINEMA

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 16:30ean

CINE INFANTIL



URRIAK

16

Larunbata
16:30

KRANSTON IKASTETXEA: MUNSTROEN ESKOLA

Ikasle buruargi bat jenioentzako barnetegi batera aldatu dute, eta han, ustekabean, beste dimentsio bateko munstroen atari bat zabaldu du: ezustekoz beteriko mundu bat irekiko zaio.




AZAROAK

13

Larunbata
16:30

IPUIN-HERRIKO BERRIAK

Hontz jaunak "Ipuin-Herriko Berriak" egunkaria irakurtzen du goizero. Bertan, Ipuin-Herrin gertatzen diren istorio zoragarriak kontatzen dira. Baina, batez ere, herriko biztanle guztien ezuste, haserre, esperientzia eta emozioen berri ematen du egunkariak.



ABENDUAK

11

Larunbata
16:30

BOONIE BEARS: ABENTURA HISTORIAURREAN

Vick eta hartzak iraganean harrapatuta daude, buruan gauza bakarra duten animalia erraldoiz inguratuta: bazkaria! Gure heroiek inoizko abenturarik zirraragarriena biziko dute!

ZINEMA FAMILIAN

Gezala Auditoriumean, larunbatetan, 19:00etan

CINE FAMILIAR



URRIAK

16

Larunbata
19:00

ANDEREA

Dokumental errealista eta onirikoa, euskal mitologiaren numen nagusian oinarritua, Mari edo Anbotoko dama, paleolitik gaur egun arte Euskal Herriaren oroimen kolektiboan bizirik iraun duen dama antzinakoa eta misteriozkoa.



AZAROAK

13

Larunbata
19:00

PAPEREZKO HEGOAK

'Euskaldunon Egunkaria' 2003ko otsailaren 20an itxi zuten Juan del Olmo epailearen aginduz eta 10 lagun abxilotu zituzten, ETArri laguntzea leporatuta. Itxiera hura lehen pertsonan bizi izan zuten protagonisten testigantzak jasoko ditu dokumentalak.



ABENDUAK

11


Larunbata
19:00

ANE

Lide segurtasun-zaintzailea da; abiadura handiko trenaren obretan egiten du lan, protesta sozialak eragiten dituen proiektuan, hain zuzen. Lan egin eta gaua festan igaro ondoren etxera itzultzean, bere alaba nerabea, Ane, ez dago etxean.

ANTZERKIA / DANTZA

Gezala Auditoriumean, igandetan, 20:00etan



IRAILAK

26

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma



RÉQUIEM POR UN CAMPESINO ESPAÑOL

Che y Moche. ZARAGOZA. GAZT. SARRERA 8€

Verano de 1937, ha pasado un año desde la muerte de Paco el del Molino y Mosén Millán, el cura que lo bautizó, lo casó y le dio la extremaunción, hoy celebra una misa de réquiem por el alma del muchacho. En un mágico viaje por la conciencia del cura, asistimos a una gran historia de amistad truncada, que sintetiza la guerra civil española como pocas, Mosén Millán y Paco el del Molino son paradigmas de dos mundos enfrentados.



URRIAK

3

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

KONPROMISOA

Txalo. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Tomas egile kaskar bat da eta German lanbidean nabarmentzerik lortu ez duen aktorea. Germanek arazo ekonomikoak ditu, eta nola edo hala bere apartamentua saldu nahi du. Hitzordua jarri du erosle izan daitekeen batekin eta Tomas lagunari etortzeko eskatu dio, hala moduzko idazlea izanagatik haren aurpegiak konfiantza ematen duelako. Baina eroslearen zain dauden bitartean gauzak okertu egiten dira. Eztabaidan hasi eta aspalditik isilean gordetako gaitzespenak leporatzen dizkiote elkarri...



URRIAK

17

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

DEAD

Lasala. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Hil aurretik zure bizitza bizitzea. Zenbat pisu kargatzen dugu ematen ditugun urratsetan? Ez garena irudikatzen saiatzen gara eta dena kontrolatu nahi dugu segurtasuna lortzeko. Oinordetutako sineste eta ereduek txoxongiloak bagina bezala zuzentzen dute gure bizitza. Hori ulertzeak lagundu egiten digu, erabakiak eraldatu eta aske bihurtzen gaitu. Norberaren esperientziaren mugak gainditzea da bizitzan hiltzeko beste modu bat, hil aurretik BIZITZEKO leihoa.



URRIAK

31

Igande
20:00,
Gezala
Auditoriuma

MAITASUNAREN ITXIERA

Arriaga Produksioak: Miren Gaztañaga & Eneko Sagardoy.
EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Maitasunaren itxiera antzezlanean, Miren Gaztañagak eta Eneko Sagardoyk pasioz eta gordintasunez eszenaratzten dute bikote baten haustura ikaragarria.

Maitasunaren itxiera lanean bikote baten elkarrizketa latza ikusiko dugu. Protagonisten bakarrizketa-trukeak hiltzen ari den maitasunaren bortizkeria adierazten du. Beldurra eta askapena nahastuko dira bikotearen elkarrizketa lazgarrian, gizon baten eta emakume baten arteko borroka suntsizaille eta gupidagabeen.



AZAROAK

7

Igande
20:00,
Gezala
Auditoriuma

NOCHES DE HOTEL

Mara Bonilla. MADRID. GAZT. SARRERA 8€

Cuatro noches de Hotel desordenadas en el tiempo. Cuatro personajes intentando encauzar sus vidas después del fracaso en buscar un ideal que acaba dejándolos insatisfechos.

En "Noches de Hotel" nada es lo que parece, nadie es completamente inocente ni culpable. Aquí los encuentros acaban en desencuentros o derivan en situaciones inesperadas y cómicamente absurdas, tal vez como la vida misma.

Una comedia dramática o un drama muy cómico.



AZAROAK

12

Ostirala
19:30,
Gezala
Auditoriuma

QUIEN BIEN TE QUIERE TE HARÁ REIR - CLOWNFERENCIA

Escuela de clown Hij@s de Augusto. VALENCIA.
gast. SARRERA DOAKOA

Conferencia en clave de humor dirigida a público adulto, jóvenes y adolescentes que tiene como objetivo reflexionar, sensibilizar y prevenir sobre la violencia machista

ANTZERKIA / DANTZA

Gezala Auditoriumean, igandetan, 20:00etan



AZAROAK

14

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

AMUA

Artedrama / Axut. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Anak bere gaztaroko bi maitale ohi gonbidatu ditu Iratiko etxola batetara. Azken asteburu bat, izan zirenaren eta amestu zutenaren izenean. Asko maitatu dute elkar eta maite dute elkar, baina zaila da intimotasun hori partekatzea.

Askatasunaren utopia azkenengoetan dela esan izan zaigu hainbatetan, baina, maitasunaren izenean, noraino joan gaitetzke? Kantuz eta irudiz, ikusleari bere lekua eskaini nahi zaio, hats hartze poetikoak minez, pozez, damuz edo ilusioz josiz.



AZAROAK

20

Larunbata
19:30,
Gezala
Auditoriuma

EZ DA KASUALITATEA

bertso-saio musikatua


EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA DOAKOIA

Emakumeak dira nagusi taula gainean, bai bertsolari zein gai-jartzaile lanetan: ez da kasualitatea. Denak emakumeak izate horretan derrigor dago intentzio bat. Umorea, jolasa, gogoeta, emakumeen arteko konplizitatea, musika eta bertsoa uztartzen dituen saioa.

Gaxuxa
LEZOKO ERANKIN TALDEA



LEZOKO
ERANKIN
TALDEA



DESKARGATU LEZOKO APP-A

Agenda osoa, sarrerak
erosteko aukera eta
beste gauza asko
kulturako APPan.

DESCARGATE LA APP DE LEZO

Toda la agenda, opción de
compra de entradas y
muchas cosas más en la
APP de cultura.



AZAROAK

28

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

EZ DOK ERO

Tartean Teatro. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

“Mikelote eta Pantxo” bikote artistikoa desegin da. Haien formula komikoa gastatua zegoen eta belaunaldi berriek haien tokia okupatu dute. Pantxok ondo hartu du behartutako erretiroa baina Mikelotek ez du bukaera onartu nahi. Egun batean Mikelote Pantxoren bila joango da Euskalerrian barna joateko, herriz herri antzetzera, “Euskal Antzerkiak Behar Gaitu” uste inozoarekin. Ibilbide fantastiko bat egingo dute Mikelotereren imaginazioak sorturiko pertsonaia harrigarriekin hamaika abentura ero biziz.



ABENDUAK

12

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

DOLU

Andoni Salamero + Pello Ramirez + Aitor Mendiluze
EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA 8€

Gure gizartean, tabu den gai bat ukitzera goaz: heriotza, galera eta heriotzaren ondorengo dolua. Gaiak berea badu ere, gure solasotan ohiko izan behar zukeenak, isiltasuna eta ihesbidea eragiten digu. Horrelako egoerari aurre eginez, gizartean, gero eta ohikoagoak dira “death-café” famatuak. Hauek horretarako antolatutak dira, hain zuzen heriotzaren gaia ez ukitzean, norberak bere barrua askatuz bere esperientziaren berri emateko.



ABENDUAK

19

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

LOS HERMANOS MACHADO

Teatro del Temple. ZARAGOZA. GAZT. SARRERA 8€

Manuel Machado, justo terminada la guerra civil, regresa a la casa que en Madrid compartían su madre y su hermano Antonio. Está intacta. Parece que no haya habido guerra en ella. Manuel no puede evitar acordarse allí de su familia y especialmente de su hermano Antonio. Por ellos sí que ha pasado una guerra. Situados en bandos distintos Antonio ha permanecido fiel a la República hasta el final. Manuel, sin embargo, ha estado en Burgos escribiendo loas a Franco.

POESIA KAIA //////////////////////////////////////

Gezala Auditoriumean

POESIA



Poesiari ate berri bat zabaldu nahi diogu. Galderak egiten jarraitu nahi dugu. Galdetzea azalekoan ainguratuta ez geratzea baita. Galdetzea, ordea, ez da beti erantzunak topatzea. Egiarekin egiten dugu amets, baina zalantza gara. Egari horretatik sortu da Lezon, Poesia Kaia.

Queremos abrir un nueva espacio. Una puerta a la poesía. Queremos seguir haciendo preguntas. Porque preguntar es no quedarse anclado en lo superficial. Sin embargo, preguntar no siempre es encontrar respuestas. Soñamos con la verdad, pero la duda es nuestro territorio. De esa necesidad ha surgido en Lezo Poesia Kaia.



AZAROAK **16** Asteartea
19:30,
Kultura
aretoa



info +

POETA:
Itxaro Borda
MUSIKOA:
Olivier Cavalié



AZAROAK **18** Osteguna
19:30,
Kultura
aretoa



info +

POETAK:
Aitzane Galardi eta Mireia Calafell
MODERATZAILEAK:
Ramón Andrés eta J.R. Makuso



AZAROAK **20** Larunbata
19:30,
Gurutze Santua-
ren basilika



info +

POETAK: **José Ángel Hernández eta Ohiane Garmendia.**
MUSIKOAK: **Arrate Zubigaray Orbea** (Klabea) eta **Jon Makuso Arrizabalaga** (biolina).

ZETA-ZETA //

Gezala Auditoriumean, ostegunetan, 19:30ean

DANTZA SAIOAK

Nola hasten da koreografia-lan bat sortzen? Zer gai, musika eta ideia aukeratzeko dira? Zergatik? Nola egiten dute lan interpreteek eta koreografoek?

Lezoko Udaletik, Dantzas-ekin elkarlanean, berrikuntza bat eskaini nahi dizuegu: dantza sorkuntzatik gertu dauden leiho irekiak. Leiho horietan, urritik apirilera bitarte ostegunetan hilean behin egingo diren saioetan, hasiera-hasieratik koreografia sortzeko prozesua partekatuko da. Nola hasten eta garatzen den ikusteko aukera. Horrez gain, dantza "tailerlean" parte hartu ahal izango dugu ekarpenak eta galderak eginez, betiere Dantzas-eko profesionalen laguntzarekin eta gidaritzapean.

¿Cómo se empieza a crear un trabajo coreográfico? ¿Qué temas, qué músicas y qué ideas se escogen? ¿Por qué? ¿Cómo trabajan intérpretes y coreógrafos?

Desde el Ayuntamiento de Lezo, en colaboración con Dantzas, queremos ofrecer una novedad: ventanas abiertas y cercanas a la creación de danza. Estas ventanas consisten en sesiones mensuales los jueves entre octubre y abril donde se compartirá un proceso de creación coreográfica desde sus inicios para verlo crecer y desarrollarse en cada sesión. Además, podremos participar con aportaciones y preguntas en el "taller" de Danza, siempre con la ayuda y guía de los profesionales de Dantzas.

URRIAK

7

Osteguna, 19:30, Gezala Auditoriuma

AURKEZPEN SAIOA

Bertha Bermudez / GAZT/CAST



Zer da ZETA ZETA?
nola hurbildu sorkuntza
koreografikora?

¿Qué es ZETA ZETA?
¿cómo acercarse a la
creación coreográfica?

URRIAK

21

Osteguna, 19:30, Gezala Auditoriuma

ZETA-ZETA 1

Beñat Urrutia eta Marina Eskisabel



AZARUAK

18

Osteguna, 19:30, Gezala Auditoriuma

ZETA-ZETA 2

Laura G. Latasa eta Lara Ivancic



ABENDUAK

9

Osteguna, 19:30, Gezala Auditoriuma

ZETA-ZETA 3

Oscar Pascual eta Iñigo Rementería



MEMORIA HISTORIKOA



MEMORIA HISTORICA

1936ko Irailaren 13an frankistak Lezon sartu ziren. Irun suntsitu eta okupatu ondoren, Errepublikaren aurka matxinatutako tropak Donostiarantz doaz, baina Gaintxurizketan eta Jaizkibelen milizianoek eta gudariek bidea ixten diete. Irailaren 13ra arte irauten dute, egun horretan defentsa-lerroak Lezotik Donostiaraino igarotzen baitira.

El 13 de septiembre de 1936 las tropas franquistas entraron en Lezo. Una vez arrasado y ocupado Irún, las tropas sublevadas contra la Republica avanzan hacia Donostia, pero en Gaintxurizketa y Jaizkibel milicianos y gudarís les cierran el paso. Resisten hasta el 13 de septiembre, día en el que atraviesan las líneas defensivas tomando Lezo y toda la comarca hasta Donostia.



IRAILAK

11

Larunbata
13:00,
Gurutze
Santuareren
plazan

OMENALDIA

1936an frankistak herrian sartu zirenean indargabetu zuten UDAL KORPORAZIOAri eta FELIX ARRIAGA ZAPIRAIN udal langileari omenaldia, lanean ari zen bitartean bonbardaketa frankistek eraila.

Homenaje a los miembros de la CORPORACIÓN MUNICIPAL de Lezo, que fueron destituidos tras la entrada de los franquistas a Lezo y a FELIX ARRIAGA ZAPIRAIN, trabajador municipal que fue asesinado por una bomba franquista mientras trabajaba.



IRAILAK

16

Osteguna
19:30,
Gezala
Auditoriuma

HAUR ERBESTERATUAK

Dokumentala. EUSKAL HERRIA. EUS. SARRERA DOAKOA

Armada frankistaren altxamendutik, eraso militarrek biztanleria zibilaren masa handi bat erbesteratzera behartu zuten. Ebakuazio horiek bultzatu ziren, batez ere, *adin txikikoak gerratik urrundu eta hiri irekietako aire-bonbardaketa bereizigabeetatik babestu nahi baitziren*. Haur hauen lekukotzak jasotzen dira dokumentalean.



IRAILAK

26

Igandea
20:00,
Gezala
Auditoriuma

REQUIEM POR UN CAMPESINO...

Che y Moche. ZARAGOZA. GAZT. SARRERA 8€

Verano de 1937, ha pasado un año desde la muerte de Paco el del Molino y Mosén Millán, el cura que lo bautizó, lo casó y le dio la extremaunción, hoy celebra una misa de réquiem por el alma del muchacho. Queda poco más de una hora para el comienzo de la misa y el viejo cura junto a su sacristán esperan la llegada de familiares y amigos.

LITERATUR SOLASALDIAK //

Astearte eta asteazkenetan, 18:15ean, **Udal liburategian** CHARLAS LITERARIAS



URRIAK
27

EUSK

BASA

MIREN AMURIZA

Ane Mayozeke dinamizatuta



AZAROAK
30

GAZT. / CAST

LEES

ANDREW SEAN GREER

Dinamizado por Javier Mina



ABENDUAK
15

EUSK

ESNEAREN KOLOREKOA

NELL LEYSHON

Ane Mayozeke dinamizatuta

TOMAS GARBIZU UDAL MUSIKA ESKOLA



Kaleko emanaldiak, betiere osasun egoerak ahalmentzen baditu.

Actuaciones en la calle siempre que las circunstancias sanitarias lo permitan.

AZAROAK
13
Larunbata
13:00,
Gezala
Auditoriuma

**BANDAREN
SANTA ZEZILIA
KONTZERTUA**

AZAROAK
14
Igandea
11:00,
Kalean

**SANTA ZEZILIA
KALEJIRA
(TXISTU IKASLEAK)**

AZAROAK
18
Osteguna
12:30,
Musika
eskola

**MUSIKALEAN
(TALDE KORALA...)**

AZAROAK
19
Ostirala
19:30,
Musika
eskola

**AKORDEOI
AUDIZIOA**

ABENDUAK
3
Ostirala
17:00,
Musika
eskola

**EUSKARAREN
EGUNA**

ABENDUAK
18
Larunbata
12:30,
Gezala
Auditoriuma

**GABONETAKO
KONTZERTUA
(BANDA)**

ABENDUAK
20
Astelehena
17:00,
Musika
eskola

**GABONETAKO
AUDIZIOA**

ABENDUAK
22
Asteazkena
18:00,
Gezala
Auditoriuma

**GABONETAKO
AUDIZIOA
(TRESNA GUZTIAK)**

ABENDUAK
23
Osteguna
19:30,
Gurutze
Santua plaza

**GABONETAKO
KONTZERTU KORALA
(SUTARGI + AITON-BORDA)**

ABENDUAK
24
Ostirala
12:00,
Euskal Herria
Plaza

**HATOR HATOR
KANTAZERA
(TALDE KORALA ETA AKORDEOI,
TXISTU ETA TRIKIA)**

ABENDUAK
24
Ostirala
16:30,
Kalean

**KALEJIRA AITON
BORDAKOEKIN
(TRIKI TALDEA)**

ABENDUAK
31
Larunbata
13:00,
Gezala
Auditoriuma

**URTE AMAIERAKO
KOPLA ZAHARRAK
(TRIKI TALDEA, KOROAK)**


AGENDA Kulturala

2021 //
IRAILA
ABENDUA

LEZET



IRAILAK 16
**HAUR ERBESTE-
RATUAK**



URRIAK 16
ANDEREA



AZAROAK 7
**NOCHES DE
HOTEL**



AZAROAK 17
OLIVER MAGOA



AZAROAK 28
EZ DOK ERO



IRAILAK 26
**REQUIEM POR
UN CAMPESINO**



URRIAK 17
DEAD



AZAROAK 12
**CLOWN-
FERENCIA**



AZAROAK 18
ZETA-ZETA 2




ABENDUAK 9
ZETA-ZETA 3



URRIAK 3
KONPRIMISOA




URRIAK 21
ZETA-ZETA 1



AZAROAK 13
**IPUIN HERRIKO
BERRIAK**



AZAROAK 18
POESIA KAIA 2



ABENDUAK 11
BOONIE BEARS



URRIAK 7
**ZETA-ZETA
AURKEZPENA**



URRIAK 29
**LÁZARO DE
TORMES**



AZAROAK 13
**PAPEREZKO
HEGOAK**



AZAROAK 20
**EZ DA
KASUALITATEA**



ABENDUAK 11
ANE



URRIAK 15
**GORPUTZAREN
ERDIGUNERA**



URRIAK 31
**MAITASUNAREN
ITXIERA**




AZAROAK 14
AMUA



AZAROAK 20
POESIA KAIA 3



ABENDUAK 12
DOLU



URRIAK 16
**KRANSTON
IKASTETXEA**



AZAROAK 5
**OILAR BAT
DAGO ZURE...**



AZAROAK 16
POESIA KAIA 1



AZAROAK 26
TEMPUS



ABENDUAK 19
**LOS HERMANOS
MACHADO**